

Eskandalagarria da

Gauza gero eta eskandalagarriagoa da. Ekonomia, moztarro moduan erabiltzen den hizkera kabalistikoaz jabetuz gero, lau arauak dakizkien edozeinek ulertzen ahal duen zientzia da (edo, gutxien-gutxienez, *a priori* uste genuena baino askoz ere errazago uler daitekeena).

Falta zen hizkera kabalistikoaren azpian zer dagoen erakusteko prest zegoen jendea; baina gero eta gehiago dira moztarroa erantzten laguntzeko prest dauden ekonomialariak (Oliveres, Toussaint, Navarro, Torres...). Eta moztarroa erori ahala, benetan gertatzen ari dena agerian geratzen denean, ikusten duguna eskandalagarria da.

Jakina, euro aldeko estatuak zordun dira; baina ez langileok "gure ahalein gaitetik" bizi izan garelako, banku pribatuei milaka milioi euro eman behar izan dizkiegulako baizik (*El País*, 2016-09-06: Espainiako Estatuak bankuei 51.303 milioi euro eman zizkien eta 2.666 milioi berreskuratu ditu, %5). Horri lapurreta esaten zaio euskaraz, nik uste.

Baina estatuak zorpetuta daude, eta Nazioarteko Diru Funtsak (IFM), Europako Banku Zentralak eta enparauek, hau da, botere ekonomiko errealak, haiei komeni omen zaielako, defizit-muga bat inposatu diete estatu zor-



Jon Alonso

IDAZLEA ETA ITZULTZAILEA

Diru-transferentzia
itzel bat gertatzen
ari da soldatapekoen
poltsikoetatik kapitalaren
jabeen poltsikoetara. Eta
txarrena da disimulatzen ere
ez direla saiatzen

petuei (baina erortzen diren bankuen zuloak estaltzeko ez dago mugarik).

Jakina, eragiketa erraza da: defizit handia + ezin zorpetzea = gastu soziala gero eta txikiagoa, edo beste batzuek esaten duten bezala, ongizate estatua-hurrenez hurreneko eraispena.

"Pentsioen itsulapikoa" deitu dutenaren arpilaketak eta gastu sozialaren

murritzetak pentsioen erreforma da-karte, besteak beste, "sistema jasanezina delako" (baina bankuei nahi beste diru ematea, beharrezkoa izan denean, hori ez zen jasanezina).

Pentsioen erreformak, orain artekoak eta etorriko denak, gero eta jende gehiago plan pribatuak kontratatzerat bultzatzen du.

Honela, lehendabizi aurrekontu orokorren murrizketaren bidez egin diguten lapurreta biribiltzeko, gure aurrezkiek bila oldartzen dira (aurrez-kirik daukatenen kasuan, behintzat).

Eskandalagarria da. Obszenoa.

Alegia, diru-transferentzia itzel bat gertatzen ari da soldatapekoen poltsikoetatik kapitalaren jabeen poltsikoetara. Sekula ezagutu den iruzur kolektibo handienetakoa, zalantzarik gabe. Eta txarrena da disimulatzen ere ez direla saiatzen, hain ikusten gaituzte mende-ko, morroi, beldurtu, garaitu. Ardi.

Baina lasai, bere planetarako norberak Eurne edo Amaia lagun edukiz gero, ez dago arazorik. Ez zenuten normalizaziorik nahi? To normalizazioa. Zer normalagoa, lapurreta global eta itzel hau euskara jatorrean ere publikizatzea baino, domeka arratsaldero, ordu erditik behin?

Eurne, Amaia, ez arduratu nitaz, ni beste planeta batekoa naiz. ■

